

LEIOAKO UDALA

Leioako Bake Epailerako deialdia (Titular eta Ordezkoa) 1659/16 zbkiko. Alkatearen Dekretua

Leioako Alkatetza-presidentetzak, 2016ko uztailaren 8ko 1659/16. Dekretuaren bidez, honako hau xedatu du:

“LEHENENGOA: Leioako udalerriko bake-epaile titular eta ordezkoa izendatzeko prozesua deitzea, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren eta Bake Epailen ekainaren 7ko 3/1995 Araudiak ezartzen dutenarekin ados.

BIGARRENA: Lanpostuaren betekizunak:

- a) Espainola eta adin nagusikoa izatea.
- b) Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta Bake Epailen ekainaren 7ko 3/1995 Araudian kargu judizialtarako xedatutako ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausetan erori ez izana.
- c) Alderdi politikoetako edo sindikatu-etako kide ez izatea eta horien zerbitzuan enplegurik ez edukitzea (ekainaren 7ko 3/1995 Araudiaren 23. artikulua).

HIRUGARRENA: Eskaera egiteko modua eta epeak:

Leioako Udalarri zuzendutako eskabidea aurkeztuko da Udal Erregitroan edo Gaztelubideko Bulegoan hamar egun baliouduneko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Honakoak ere aurkeztuko dira, hala badagokio:

1. NANaren fotokopia.
2. Curriculum eta interesdunek bere asmoa babesteko egoki jotzen dituzten agirien kopia egiaztatuak.
3. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta Bake Epailen ekainaren 7ko 3/1995 Araudian kargu judizialtarako xedatutako ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausetan erori ez direlako adierazpena.

LAUGARRENA.- Udalaren hautaketa-prozedura:

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Udaleko Barne Araubideko Batzorde Informatiboak eskabideok nahiz horiei erantsitako dokumentuak aztertuko ditu eta eskatzaileen artean titular eta ordezko bake-epaile bat proposatuko dio, hasiera batean, Udalbatzari.

Legezko eskakizunak izangaietako batek baino gehiagok betez gero, hautaketa egiteko merezimenduen baremo hau erabiliko da:

- Zuzenbideko Lizentziaturaren titulua aurkeztea: 5 puntu.
- Bake-epaile gisa esperientzia izan duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea: gehienez 4 puntu.
- Euskara-ezagutzak:

* 1. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: puntu 1.

* 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: 2 puntu.

* 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: 3 puntu.

* 4. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: 4 puntu.

- Leioan erroldatuta egotea: 3 puntu. *(ezangarri hau balioetsiko da udalerraren ezagutzagatik eta Epaitegiaren egoitzara joateko prestutasunagatik, premiazkoa edo beharrezkoa bada).*

BOSGARRENA.- Deialdiaren iragarkia argitaratzeko agindua ematea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean; Udalaren, Lehen Auzialdi eta Instrukzioko Getxoko Epaitegiaren, Leioako Bake Epaitegiaren eta Auzitegi Nagusiko iragarki tauletan; hiru komunikabidetan; eta udal aldizkarian

SEIGARRENA.- Interesatuek informazioa eskuratu ahal izango dute Leioako web gunean: www.leioa.eu”

Leioan, 2016ko uztailaren 11an
ALKATEA,

Izpta. M^a Carmen Urbieta González